# Denis Itxaso: “Vivienda también cuenta”

D.P.

El consejero de Vivienda y Agenda Urbana del Gobierno Vasco habla de cine, vivienda y emancipación con motivo del ciclo “Cine y Vivienda”.

**La vivienda aparece con frecuencia en el cine. ¿Qué cree que puede contarnos una película sobre nuestra relación con ella?**
La vivienda es mucho más que cuatro paredes. Es seguridad, intimidad, relaciones y también la posibilidad de construir un proyecto de vida. Es junto al alimento lo primero que trata de asegurar el ser humano. Por eso aparece tantas veces en el cine. Detrás de cada vivienda hay una historia humana.

**El ciclo reúne películas tan diferentes como *El pisito*, *Cinco metros cuadrados*, *Parásitos* o *Nomadland*. ¿Qué tienen en común?**
Todas hablan, de una manera u otra, de cómo la vivienda condiciona nuestras vidas: de las dificultades para acceder a ella, de las desigualdades o de las distintas formas de habitar. El cine nos permite acercarnos a estas cuestiones desde las personas y no solo desde las cifras, las obras o las regulaciones.

**Donostia es uno de los municipios donde la vivienda está más tensionada. ¿Qué está cambiando y qué queda todavía por hacer?**
Donostia es uno de los lugares donde el problema se expresa con mayor intensidad. Los últimos datos muestran una primera moderación: el precio medio de los nuevos alquileres ha bajado un 3,7 %. Pero sería prematuro hablar todavía de una tendencia consolidada porque los precios siguen siendo muy altos para la mayoría. Las zonas tensionadas están ayudando a contener los precios, pero necesitamos aumentar la oferta de vivienda asequible y protegida, y eso exige que los Ayuntamientos se comprometan con un urbanismo serio.

**¿Y qué supone esta situación para una persona joven que quiere emanciparse?**
Que tenemos que facilitarle las cosas. Una persona joven no debería tener que retrasar su proyecto de vida porque no pueda acceder a una vivienda. Por eso estamos actuando desde distintos frentes, desde el aumento de la vivienda protegida hasta ayudas como Gaztelagun, o con el seguro público y gratuito AlokaPlus para sacar pisos vacíos al alquiler asequible.

**Gaztelagun estará también presente en el Festival, en la plaza Okendo. ¿Por qué llevar una política de vivienda a un festival de cine?**
Porque las políticas públicas tienen que estar donde está la gente y se fomenta la reflexión. Queremos que los jóvenes conozcan las ayudas, puedan resolver sus dudas y solicitarlas allí mismo. Y el Festival nos ofrece una oportunidad magnífica para hablar de vivienda en sentido amplio y con sus profundas implicaciones culturales.

**¿Qué le gustaría que se llevara una persona joven después de ver este ciclo y pasar por el espacio de Gaztelagun?**
Que su historia no está escrita de antemano. El cine nos muestra muchas formas de vivir y también las dificultades que podemos encontrar. Y nuestra relación con la vivienda habla del tipo de sociedad que somos. Desde las instituciones tenemos que conseguir que la vivienda no determine el futuro de una generación. El cine cuenta cómo vivimos; nuestra responsabilidad es ayudar a que podamos elegir cómo queremos vivir.



# Denis Itxaso: “Etxebizitzak ere badu zeresana”

P.D.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda sailburuak zinemaz, etxebizitzaz eta emantzipazioaz hitz egin du “Zinema eta Etxebizitza” zikloaren harira.

**Etxebizitza maiz agertzen da zineman. Zer konta diezaguke film batek etxebizitzarekin dugun harremanaz?**
Etxebizitza lau horma baino askoz gehiago da. Segurtasuna, intimitatea eta harremanak dira, baina baita bizitza-proiektu bat eraikitzeko aukera ere. Elikadurarekin batera, gizakiak bermatu nahi izaten duen lehen gauza da. Horregatik agertzen da hainbestetan zineman. Etxebizitza bakoitzaren atzean, pertsona baten istorioa dago.

**Zikloak *El pisito, Cinco metros cuadrado, Parasitos* edo *Nomadland* bezalako film ezberdinak biltzen ditu. Zer dute komunean?**
Denek hitz egiten dute, nola edo hala, etxebizitzak gure bizitza baldintzatzeko duen moduaz: etxebizitza eskuratzeko zailtasunez, desberdintasunez edo bizitzeko modu ezberdinez. Zinemak aukera ematen digu gai horietara pertsonetatik hurbiltzeko, eta ez soilik zifretatik, obretatik edo erregulazioetatik.

**Etxebizitza gehien tentsionatuta dagoen udalerrietako bat da Donostia. Zer ari da aldatzen, eta zer dago oraindik egiteko?**
Arazoa Donostian adierazten da gogorren. Azken datuek lehen barealdi bat erakusten dute: alokairu berrien batez besteko prezioa %3,7 jaitsi da. Baina oraindik goizegi da joera finkatu batez hitz egiteko, prezioak oso altuak baitira oraindik herritar gehienentzat. Eremu tentsionatuek prezioak eusten laguntzen dute, baina etxebizitza eskuragarri eta babestuaren eskaintza handitu behar dugu, eta horretarako udalek hirigintza serioaren aldeko konpromisoa hartu behar dute.

**Eta zer suposatzen du egoera honek emantzipatu nahi duen gazte batentzat?**
Gauzak erraztu behar dizkiogula. Gazte batek ez luke bere bizi-proiektua atzeratu behar, ezin duelako etxebizitza bat eskuratu. Horregatik ari gara hainbat alorretatik lanean: etxebizitza babestuaren eskaintza handitzen, Gaztelagun bezalako laguntzak ematen, edo AlokaPlus aseguru publiko eta doakoaren bidez hutsik dauden etxebizitzak alokairu eskuragarrira bideratzen.

**Gaztelagun ere presente egongo da Zinemaldian, Okendo plazan. Zergatik eraman etxebizitza-politika zinema-jaialdi batera?**
Politika publikoek jendea dagoen lekuan egon behar dutelako eta hausnarketa sustatzen delako. Gazteek laguntzak ezagutzea nahi dugu, zalantzak argitu ahal izatea eta, gainera, bertan bertan eskatu ahal izatea. Eta Zinemaldiak aukera bikaina eskaintzen digu etxebizitzaz zentzu zabalean hitz egiteko, dituen kultur ondorio sakonak ere kontuan hartuta.

**Zer nahiko zenuke gazte batek ziklo hau ikusi eta Gaztelagunen gunetik igaro ondoren eramatea?**
Bere historia ez dagoela aldez aurretik idatzita. Zinemak bizitzeko modu asko erakusten dizkigu, baita aurki ditzakegun zailtasunak ere. Eta etxebizitzarekin dugun harremanak garen gizarte motaz hitz egiten du. Erakundeek lortu behar dugu etxebizitzak belaunaldi baten etorkizuna ez baldintzatzea. Zinemak nola bizi garen kontatzen du; gure ardura da nola bizi nahi dugun aukeratu ahal izateko laguntza ematea.

